

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

[Elementu Finituen Bidezko Simulazioa eta
Analisisa Automobilgintzan]

[Automobilgintza Gradua]

[2020/03/24]

Irakasgaiaren koordinatzailea
[Ana Boyano]

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko deialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Edukiak, azken astei dagozkioanak dira:

SOLIDOEN MAILAKETA ETA KALKULOA:

- Solidoen mailaketa: tetraedroak, hexaedroak
- Irizpide erresistentearen aplikazioa

GAINAZALEN MAILAKETA ETA KALKULOA:

- Gainazalen mailaketa: motak
- Erdiko gainazala lortzeko metodoak

IKASGAI AMAIERAKO PROIEKTUA, TALDEKA:

- 5 proiektu proposatuko dira, eta taldeka garatu beharko dituzte, eta klasean aurkeztu, kasu honetan egelan. Proiektu honetan egin beharreko lanak, besteak beste, informazioa bilatu, arauak aplikatu, automobilgintzako osagai bat diseinatu eta kalkulatu, dokumentazioa sortu eta ahozko aurkezpena dira.

2. METODOLOGIA

Geratzen diren aste hauetan, ikasgaiak ikasgelako klase magistralak ditu (1ordu astero), klase Praktikak (1 ordu astero) eta ordenagailu Praktikak (2ordu astero)

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Klase hauek bideoen bidez egiten ari dira. Bideo hauek egelara igotzen dira klase eguna baino egun batzuk lehenago. Ikasgai honen 4 orduak batera ematen dira egun batean eta horrela ordenagailuko Praktikak teoria ikusi ondoren egin daitezke. Geratzen diren aste hauetan, klaseko lehenengo bi orduak bideoak ikusteko eta proposatutako ariketak egiten hasteko erabiliko dira. Beste bi orduak BBC erramintaren bidez emango dira, zalantzak argitzeko, eta beharrezkoa denean ariketak konpartitzeko emaitza egelara igo baino lehen.

Ariketa batzuk aldatu behar izan dira, eta ezin izan dira hasiera batean planteatuta zeudenak egin, orain ikasleek beraien etxeetan Ikasle bertsioa erabiltzen ari direlako, eta klasean dagoen bertsioarekin konparatuta mugatuta dago.

Egelan kurtsoa asteetan antolatuta daukate, proposatutako ariketa guztien enuntziatuekin eta ariketak bukatzean, egelara igotzeko prest.

2.2. MINTEGIAK

Ikasgai honetan ez dago mintegirik.

2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Ikasgai honetan ez dago laborategiko praktinarik. Ordenagailu Praktiak beraien etxean egiten ari dira, beraien ordenagailua erabiliz, Ikasle bertsioarekin.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Ebaluazioa irakaskuntza gidan dagoen moduan mantenduko da. Kurtsoa hasita dago eta Ikasle guztiak ebaluaketa jarraitua jarraitzen ari dira.

Ebaluazio tresnak eta ehunekoak:

- ASTEROKO PRAKTIKAK: %40
- PROIEKTUA (AHOZKO AURKEZPENA BARNE): %30
- ORDENAGAILUAN AZTERKETA: ELEMENTU FINITOEN BIDEZKO PRAKTIKA: %30

4. OHIKO ETA EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

Ohiko deialdian, Ikasle guztiak ebaluaketa jarraitua egiten ari dira.

- ASTEROKO PRAKTIKAK: %40

Astero egelara ariketen azalpenak eta emaitzak igo behar dituzte bai teorikoak bai ordenagailuan egindako ariketenak ere.

PROIEKTUA (AHOZKO AURKEZPENA BARNE): %30

Klaseko azken asteetan, proiektua taldeka egin behar dute. Proiektu honetan ez da bakarrik ordenagailu bidezko kalkulua sartzen, hemen ere arauak nola aplikatu ikasi beharko dute, automobilgintzako osagai bat diseinatu eta kalkulatu beharko dute. Horrekin lotuta dagoen dokumentazioa sortu, materiala aukeratu...etab.

Proiektua bukatzean, ahozko aurkezpena taldearen aurrean egin behar dute. Oraingo egoera dela eta, BBC erramintaren bidez egingo dute, beraien powerpoint-a partekatuz eta ordenagailuko kamara erabiliz.

ORDENAGAILUAN AZTERKETA: ELEMENTU FINITOEN BIDEZKO PRAKTIKA: %30

Kurtsoko azken astean elementu finitoen praktika bat egingo da BBC erraminta erabiliz. Horrela, ariketa hauek nola egiten duten ikus daiteke, ikasleek beraien pantaila konpartitzen eta bukatzean emaitzak egelara igotzen, geroago lana ebaluatu ahal izateko.

Era honetan, azterketa data ofizialak arintzeko, edo orduan egin beharko liratekeen frogak arinagoak izan daitezen, azkarrago egin ahal izateko edo ikasle gutxiagok egin behar izateko.

EZ- Ohiko deialdian, nota minimoa ez duena lortu, dagokion egunean azterketa online gin beharko du.